



Gaia: Prozedura eteteko Erabakia.

Espedientea: 2019-2020 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2019-2020 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak emateko deialdia (2018ko azaroaren 20ko Agindua. 2018ko abenduaren 5eko EHAA, 234. zk.).

Hezkuntza Saila

*2019-2021 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak eta 2019-2020 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak iragarri zituen Hezkuntza sailburuaren 2018ko azaroaren 20ko Agindua dela-eta (2018ko abenduaren 5eko EHAA, 234. zk.) Sail honetan izapidetzen ari den administrazio-prozeduran ebaluazio-txosten bat gehitu behar da; izan ere, txosten horrek arloari buruzko iritzia eman behar du eta prozedurari gehitu behar zaio derrigorrean, eman beharreko ebazpenaren edukari buruz irizpidea zehazteko, horrelako administrazio-prozedurei aplikatzen zaien araudiak xedatutakoaren arabera.*

Hori dela eta, jakinarazten dugu 2019ko apirilaren 15ean eskatu zaiola Ikerketako Estatu Agentziari aipatutako txostena emateko eta bidaltzeko, administrazio-espeditentari gehitzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura bat ebatzi eta ebazpena jakinarazteko legezko gehieneko epea etenda egongo da, gehienez hiru hilabetez, eskaera egiten denetik derrigorrezko txosten arrazoitua jaso arte.

Horren arabera,

ERABAKITZEN DUT

*2019-2021 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak eta 2019-2020 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak iragartzen dituen 2018ko azaroaren 20ko Agindua dela-eta ((2018ko abenduaren 5eko EHAA, 234. zk.) Sail honetan izapidetzen ari den espedientearen administrazio prozeduraren tramitazioa etetea, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak eman beharko duen ebazpenaren edukia zehazteko funtsezkoa izango den derrigorrezko txostena jaso eta espedientera gehitu arte. Txosten hori jasotzeari buruzko informazioa unean-unean emango zaio interesdunari.*



Halaber, jakinarazten dugu erabakitako etetearen epea ezin izango dela inolaz ere hiru hilabetetik gorakoa izan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Erabaki hau prozeduran interesatuta dauden guztiei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 7a.



HEZKUNTZA BAILA  
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Dirección de Investigación

Amaia ESQUISABEL ALBERTA  
Ikerketako Zuzendaria.